

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, webgunean enpresaren posta eta telefono zenbakia eskuragarri izango dute. Gainera, web orrian bertan bezeroak dituen kezka argitzeko atal bat agertuko da: "Laguntza".

Produktuak fabrikako akatsen bat jasanez gero, gurekin kontaktuan jarri beharko dira eta guk beste produktu berri bat bidaliko diegu.

Gure produktuetako bakoitzak argi identifikatu daitezkeen serie- eta konpilazio-zenbakiak izango ditu, erabiltzaile funtzioa egingo dutena. Webgunearen atal horretan azpi atal bat egongo da, non bezeroek beren produktuen jarraipena egin ahal izango duten: erosketa-data ikusi eta produktuaren egoera aztertu, beste askoren artean. Horretarako, goian aipatutako zenbakiak erabili beharko dira, gure sistemak gailu zehatza identifikatu dezan bere errebisioa egiteko. Produktuak arazoren bat izanez gero, bertan detektatuko da zein den, gero konponketa edota itzulketa gauzatzeko.

Produktua online erosi izan bada, bere osotasunean bueltatu beharko da: pieza guztiekin eta bere fabrikako paketean; hala ere, produktuaren jarraibidetan jarraitu beharreko pausuak zein diren zehazki azalduta egongo da, edozeini garbi gera dakion. Itzulketa edozein bilketa-puntu edo Correosen egin daiteke eta erabilitako ordainketa-metodoan dirua bueltatuko da behin gure teknikoek produktuaren egoera zehazten dutenean. Erosketa denda fisiko batean egiten bada berriz, produktua erositako lekura bueltatu beharko da.

Gure langile guztiak prest daude gure produktuei buruzko informazio eguneratuena eta garrantzitsuena ahalik eta modurik errazenean eskaintzeko. Gainera, webgunea une oro eguneratuta egongo da, egiten diren ekintza edo berriketa guztiak haren bitartez publikoari eskainiz. Erregistratzeko aukera ere izango dute bisitariak goian aipatutako erabiltzailea dela medio. Behin erregistratuak, automatikoki izen emango zaie doako harpidetza batean, produktuetan beharpenak badaude edo edozein produkturen *stocka* bukatzen denean jakinaraziko diena. Ildo beretik, harpidetza *premium* bat eskuragarri izango dute: 4,99€ hilabeteko, salgai jarri baino lehenagoko produktuei. Gainera, produktu berriak eta eskaintza paregabeak lortzeko aukera emango zaie.

Nolanahi ere, denbora pasa ahala, gure negozioa finkatzen doan heinean, banaketa selektiboarekin hasiko gara, hau da, produktua era desberdin batean salduko genuke. Hain zuzen ere, teknologia denda askorekin harremanetan jarriko ginatete haietan gure produktua saldu ahal izateko. Horrela, "Xchanger" hainbat herrialdetan

komerzializatzea espero dugu, gure enpresa haziz eta aukera berritzaile hau jende gehiagori eskainiz.